

Enpresa Ideia Berrien II. Lehiaketaren irabazleak aukeratu ditu Mondragon Unibertsitateak

2008/07/29

Enpresa Ideia Berrien II. Lehiaketaren talde-irabazleak zein izan diren erabaki du Mondragon Unibertsitateak. Lehiaketa joan zen martxoan jarri zen abian, negozio-ideia onenak saritzeko asmoz, eta enpresa-jarduera berriak sortzera zuzendurik dago. Balio erantsia eta lana sortzeko proiektu berritzaileak sustatu nahi dira lehiaketaren bidez. Lehen saria 1.000 euro eta proiektuaren bideragarritasun Plana burutzeko beka dira.

Guztira unibertsitateko 24 ikasle-taldek hartu dute parte lehiaketan, eta aurkezturiko hiru enpresa-ideia onenak saritu dira. Talde irabazleak euri-ura eta ur grisak jasotzeko eta pertsonekin kontakturik ez duten jardueretan berrerabiltzeko proiektua aurkeztu zuen. Taldea Antolakuntzako Ingeniaritzako honako ikasle hauek osatzen dute: Ander Ansoategik, Aritz Kruzelegik, Ametz Elustondok, Paul Gorostizak, Jon Orobio-Goikoetxeak eta Iñigo Oteizak.

Sarituriko bigarren enpresa-ekimena Enpresa Humanitatean lizentziaturiko ikasle batek jaso zuen, Sandra Calvok, eta haren proiektuak ahotsaren heziketa, artea eta osasuna lantzeko kooperatiba bat sortzea du helburu. Azkenik, sarituriko hirugarren ekimena Enpresa Proiektuen Masterreko ikasleek diseinaturikoa izan da. Parkingen kudeaketa-zerbitzu integrala da proiektua, honako zerbitzu hauek barne dituenak: plazak aurretik erreserbatzeko aukera, sms bidezko abisuak, parking barruan beste zerbitzu batzuei buruzko informazioa, etab.

Lehiaketa horrekin, Mondragon Unibertsitateak enpresa berriak, produktu berriak eta negozio-linea berriak sortuko dituzten jarduerak abiarazi eta ekintzailletza sustatu nahi ditu.



Ikasle partehartzaileak